



EUSKAL PERPAUSEN DANTZA

Menderakuntza bidezko perpausak -I-

- >Menderakuntza
- >Baldintzazkoak

NOLA ERABILI

Menderakuntza bidezko perpausak -I-

Esku artean daukazu bideoan bi atal nagusi bereiz daitezke. Lehenengoa, oso laburra bera, menderakuntzari buruzkoa da. Bertan mendeko perpausak aurkezten dira.

Bigarrena, baldintzazko perpausari eskaini zaio. Bertan, alegiazko baldintzak eta ez-alegiak bereizten dira lehenengo, eta baldintzazko perpausak egiteko erabiltzen ditugun egituren berri ematen gero.

-Menderakuntza 03:31

PROPOSAMENA

Bideo-gelara jo aurretik, atalari dagozkion orrialdeak ikasleei banatzea, bertan agertzen diren kontzeptuak eta adibideak lantzea eta ikasleen zalantzak argitzea komeni da.

-Baldintzazkoen sarrerakoa 04:46

PROPOSAMENA

Sarrerakoan, hau proposatzen dizugu: aurkezleak beste antzezle eta aurkezleei egiten dien galdera, *Zer egingo zenuke aberatsa bazina?* edo *Zer egingo zenuke diru asko eta asko izango bazenu?* ikasleei eurei egitea eta erantzuna idatziz eman dezatela eskatzea. Bukatzeko, ikasleei idatzitako beste ikasleen aurrean ozen irakur dezatela eskatuko diegu.

EUSKAL PERPAUSEN DANTZA

4. kapitulua

Menderakuntza bidezko perpausak -I-

Dagoeneko badakigu perpaus bakunak konbinatu egiten direla perpaus elkartuak lortzeko. Batzuetan maila bereko perpausak elkartzen ditugu. Horretarako, juntagailuak erabiltzen ditugu. Beste batzuetan, ordea, perpaus bat beste baten barruan txertatu egiten dugu. Horretarako, menderagailuak erabiltzen ditugu. Azken kasu horietan, txertatutako perpausa mendekoa dela esaten dugu eta perpaus-elkarketa horri menderakuntza deitzen diogu. Ikus dezagun.

menderakuntza

Txertatutako perpausari mendekoa esaten zaio eta perpaus nagusiaren osagai bilakatzen da.

Menderakuntza menderagailuen bidez gauzatzen da.

Menderagailuak, ia beti, mendeko perpausaren adizkiari eransten zaizkion atzizkiak dira.

Menderakuntza errekurtsiboa da; hau da, mendeko perpaus baten barruan beste bat txerta daiteke.

Gehienetan menderagailua mendeko perpausaren amaieran jarri ohi da.

Menderakuntzaren barruan hamaika multzo bereiz daitezke:

Perpaus osagarriak, zehar-galderak, helburuzkoak, kausazkoak, baldintzazkoak, erlatibozkoak, denborazkoak, kontzesiboak, moduzkoak, konparaziozkoak eta ondoriozkoak.

AURKE.- Kaixo, Agurtzane, gauza bat galdetu nahi dizut.
AGUR.- Ongi da. Bota.
AURKE.- Zer egingo zenuke aberatsa bazina?
AGUR.- Aberatsa **banintz**, belauntzi bat erosiko nuke eta Madeirara joango **nintzateke**.

AURKE.- Lorea, galdera bat egin nahi dizut.
LOREA.- Bai, galdetu.
AURKE.- Zer egingo zenuke, hamar milioi euroko loteria tokatuko balitzaizu?
LOREA.- Ez dakit; horrela, bat-batean...
AURKE.- Bost segundo dauzkazu erantzuna ongi pentsatzeko.
LOREA.- Hamar milioi eurokin zer egin? Ba... Bai, futbolari-talde on bat kontratatuko nuke eta Europako lehiaketetan parte hartuko nuke.

AURKE.- Aizu, Mikel, galdera bat egin nahi dizut.
MIKEL Ados. Bota.
AURKE Zer egingo zenuke diru asko izango bazenu?
MIKEL.- Diru asko? Baina, zenbat?
AURKE.- Ba, ez dakit. Hamar milioi euro, esaterako.
MIKEL.- Hamar milioi, uf! Askok da, e? Hamar milioi euro izango **banu**, ba ..., baserri bat erosiko nuke, ardiak eta behiak jarriko **nituzke**, eta zaldiak ere bai.

AURKE.- Olatz, galdera bat egin nahi dizut.
OLATZ.- Ez dakit, presaka nabil eta. Baina, beste erremediorik ez badago... Bota.
AURKE.- Zer egingo zenuke, zure sendiko batek testamentuaren bidez hamar milioi euroren jabe egingo bazintu?
OLATZ.- Nire eskerrik beroenak emango **nizkioke** lehenengo, eta haren hileta ospakizunean Euskadiko Orkestra Sinfonikoak joko luke, eta Ainhoa Artetak kantatuko, eta dena nik neronek ordainduko nuke. Hori guztia egin ondoren, etxe berria erosiko nuke; aitari eta amari auto-karabana berri bat erosiko nieke; eta, mutil-lagunari diamantedun belarritako bat. Egoera berria ospatzeko, mutil-laguna eta biok Parisera joango **ginateke**.

- AURKE.-** Honezkero, konturatu zarete, baldintzazko perpausei buruz hitz egingo dugula.
- AGUR.-** ...eta Madeiran luxuzko hotel batean hartuko nuke ostatu.
- AURKE.-** Luxuzko hotel batean, jakina.
Ea, jarrai dezagun. Baldintza ...
- AGUR.-** Eta zuk? Zer egingo zenuke aberatsa bazina?
- AURKE.-** Nik? Zer egingo nukeen nik?
- AGUR.-** Bai, zer egingo zenuke? Jakin-mina piztu didazu.
- AURKE.-** Nik? Zera... Sartu errotulua, azkar!

Liburuak

ZUBIRI, Hilari ; ZUBIRI, Entzi:
Euskal Gramatica Osoa,
Didaktiker, Bilbo, 2000.

ZUBIZARRETA, Aitor; DORRONSORO, Mikel; ZUBIMENDI, Josemari:
Gramática Gaitasuna Lantzen,
Euskara Zerbitzua, Glotodidaktika-lanak. Gasteiz, 2000.

EUSKALTZAINDIA:
Euskaltzaindiaren arauak,
Euskaltzaindia, Bilbo, 1994-2000.

Orri elektronikoa

www.hiru.com